
Zenbait eragiketako buruketak



Eiderrek 16 € balio duen kamiseta bat eta 3 txano berdin erosi ditu. Guztira, 43 € ordaindu du. Zenbat balio du txano bakoitzak?

1. Kalkulatu zenbat ordaindu dituen 3 txanoak.
   Egin 43 ken 16.

$$\begin{array}{r} 43 \\ -\ 16 \\ \hline 27 \end{array}$$

3 txanoek 27 € balio dute.

2. Kalkulatu txano bakoitzaren prezioa.
   Egin 27 zati 3.

$$\begin{array}{r|l} 27 & 3 \\ 0\ 9 & \end{array}$$

Txano bakoitzak 9 € balio du.

➢ Irakurri eta erantzun.

Asierrek hainbat kromo erosi ditu: 4 zorro, bakoitza 10 kromokoa. Eta kromoak 5 pilo berdinetan banatu ditu. Zenbat kromo jarri ditu pilo bakoitzean? Pixkanaka kalkulatuko dugu.



- Zenbat kromo erosi ditu Asierrek guztira?


Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

- Zenbat pilotan banatu ditu?
- Zenbat kromo jarri ditu pilo bakoitzean?

Eragiketak	Erantzuna	Unitateak

➢ Irakurri eta egin buruketari buruzko marrazki bat zure koadernoan. Ondoren, ebatzi.

Kutxa batean, 25 bonboi zeuden. Mirenek bat jan zuen, eta ondoren, gainerako bonboiak 4 erretilu berdinetan banatu zituen.
Zenbat bonboi jarri zituen erretilu bakoitzean?



Eragiketak	Erantzuna	Unitateak